

Edertasunaren Gida

**A
U
SART**

Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa
Txaro Carrizo

Iturriotz kalea, 24.
Tel.: 943 77 30 60
943 77 21 58

SUSi

ILE APAINDEGIA

Garibai, 3-etxabea
Tel.: 943 79 50 27

Jose Antonio

GIZONEZKOEN
ILE APAINDEGIA

Otalora lizentziatua, 22-behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 42 10

JADE

ILE APAINDEGIA

Maalako Errabala, 21-B • ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31

LEA

Ferrerias, 14. 943 79 87 62

Lore



Olarte, 10 • ARRASATE • Tel.: 943 79 52 50

Lurrindegia eta estetika zentroa

KORA Ñ NEAL Ayer HR CLARINS BIOTHERM VALMONT

Edertu

Ile apaindegia • Solariuma

*Maritxu gau berezitarako
orrazkerarik ederrena*


San Andres auzoa • Tel.: 943 79 04 28 ARRASATE

Gida honetan azaltzea nahi baduzu, deitu ezazu 943 71 23 91 telefono zenbakira.

KALEINKESTA/ Zuk uste dozu herri barruen automobille larregi ibiltten dala?



JULEN BARINAGA
Langillie




ZUHAITZ HERRERO
Langillie



SOLEDAD GONZÁLEZ
Langillie



RAQUEL MONTEOLIVA
Langillie



RUFINO DURÁN
Langillie



OIHANE ARRIARAN
Langillie

Nik neuk egunero ibiltten dot automobille, Oñatira lanera jueteko, baiñe herriren ez dot ibiltten. Aparketie ezinezkie izeten da. Automobille gutxiago ibilli biterko geunke.

Auzuetako jente asko automobillien jeisten da kalera, eta kalekuok ez dogu eukituen lekuri aparketako. Larregi ibiltten dala uste dot. Auto bariko egun gehixago egin beharko leukie.

Automobille larregi ibiltten dogu; nik neuk auzotik kalera jeisteko be ibiltten dot. Aspaldixen ez, aparkaleku gutxi daguelako. Laster, oiñez edo autobusez ibilli biher.

Automobille larregi ibiltten dogu. Askotan, oiñez edo bizikletaz juen ezker, gauzek azkarrago eta hobeto egingo gittuke. Auto bari-ko egunek egittie ederto daguela uste dot.

Automobillek larregi ibiltten diela uste dot; gaiñera, oin herri autobuse eukitete... Etxe askotan automobille bat baiño gehixago dago... Kalera oiñez jeisten ohittu biher gare.

Ez dauket karnetik, baiñe automobille larregi dago. Oiñezkuendako baiño erreztasun haundixaguet dagoz automobillendako. Auto bariko egune sinbolikue da.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK ERREPIDEKO ZULOAK Orain dela gutxi, Zarugalde kaleko errepidean zulo bi agertu dira. Ez dakigu kale horretan bertan egindako lanen ondorio izango diren edo ez, baina batek baino gehiagok, handik autoz igarotzean, susto handia hartu du. Dena dela, eta argazkian ikus dezakezuen, autoak ez dira zulo horiek kalte ditza-
baten bakarrik. Ea, bada, konpontzen dituzten!

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /7	KIROLA /10	ZAHARRAK /17
Pagor Ederlan salatu dute Uribarriko lantegiaren emisioek inguruko gutzia herdoiltzen dutela salatu dute Udalean.	Urriari hainbat ikastaro Arrasateko Yoga Elkarteak hainbat ikastaro antolatu ditu; urriari hasi eta abendura arte izango dira	Zahartzaroan igeri egitea Zahartzaroan igeri egitea oso osasungarria da. Horren gaineko erreportajea landu dugu.

ASTEKO DATUA

2.182

LAGUN IBILI ZIREN URBANOAN EGUBAKOITZEAN

2.182 lagun ibili ziren egubakoitzean, Auto Bako Egunean, herri autobusean. Lau autobus ibili ziren eta bidaiak doan izan ziren, garraiobide publikoaren erabilera bultzatzeko.

BESTEKE SANA

“Azkenaldian Euskal Herrian jasaten ari garen egoerak jendearengan iritzi desberdinak sorrerazi baditu ere, Batasunaren ilegalizazioaren ondorioz jasaten ari garen presio, irain, gezur; azpijoko, egur, mehatxu, atxiloketa eta abar luze bat da punturik latzenetakoa, 'estatu demokratiko' baten ezaugarri garbiena edo zikinena aldi berean (...). Erantzukizuna hasiera batean Aznar, Garçon eta beraien jarraitzaile-laguntzaile-espainolena dela argi dago, iniziatiba beraiena izan baita baina joko honetan beraien apustua 'irabazi' duten beste laguntzaile batzuk ere ageri dira, EAJ eta EA alegia. Beti izan dute joera Madril aldera joateko baina gero eta garbiago uzten ari dira zein den beraien lekua eta interesa...”
ESTITXU UNZURRUNZAGA
'Euskaldunon Egunkaria' /02-09-24

HERRITARREN BERBAK/ Amaia Martiartu



Euskal Herritik Kaliforniara

Ring, ring, ring! Anaaa, ze moduz Frisco-n? Laster hantxe ikusiko dogu elkar. Neskatillie hamen dauket. Ixe hiru urte dauko, zela pasau dan denporie, ezta? Zeurekin berba egin gure dau. Anetxo, telefonora: Ameriketara goiez, bai, baiñe lelengo pantanora, bale? Eta, eta... mommy-k esaten dau soiñeko larroxa ezetz!, eta, eta nik soiñeko larroxa gure dot. Minny mouse-na, eta mammy-k ez dau gure dana larroxa. Eta Marinak soiñeko larroxa dauko eta Sarak be bai, eta nik be bai gure dot. Bai... eta Abu galdu egin da, bai... Abu tortugie, eta meloie jaten dau Abuk, bai... Eta Andonik jo egin nau ikastolan, bai... eta Andonik jo egitten dau ... mutikue dalako, esan dau Ainarak, bai... Eta neuri ez jat gustetan etxafleruek, ez... eta Txispasek botaten dittu etxafleruek, eta neuri sustue emuten dustie. Baiñe apurtxo bat bakarrik, e? Eta neuk esan dot,

"Ala! A jugar a pala!". Tio Denisek esaten dau hori, bai...Eta neuk ulie moztu dot.. Eta pelukerak ez euen gure ulie mozterik, ez, neuk koletita ipinteko. Eta daddy hasarretu egin da... Eta neu... Ameriketara noie! Eta han Seth eta Jessy dagoz eta jabaryu esaten daue.

“Sexismue leku eta egoera danetan dago eta ezinezkie da kontroletie. Gurasuok esfortzu txiki bat egin geinke”

Edu eta Aitzol be bai, Ameriketara datoz, baiñe Txispas, ez... Ale, neskatilla, bapo. Ana, ikusten dozunez, sexismue leku eta egoera danetan dago eta ezinezkie da kontroletie. Ze egin orduen? Gurasuok esfortzu txiki baiñe garrantzitsu bat egitteko daukogu umien mundue ekilibretako: emakume futbolariexek agerketan dien liburuok erosi, neskek karate egitten dauen pelikulek ikusi; alabari, gure badau, mekanikarixe izen ahal dala esan, eta beste ehunka adibide aurkittu. Ia geure umiek gizarte majo bat egitten duskuen. Agur. (Idazliaren notie: Anetxoren komentariexuek benetakuek die).

Arrasate PRESS

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran
ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai
MAKETAZIOA
Alex Azkarate
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren
LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88
ISSN
0214-4654
TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zehitzuzak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaio
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 27
Corcuera, Aranbarri 1. 943 79 22 26

ZAPATUA, 28
Irizar, Erguin 11. 943 79 12 39

DOMEKA, 29
Amezua, Santa Marina 32. 943 79 09 74

ASTELEHENA, 30
Zabala, Zarugaldé 42. 943 77 16 30

MARTITZENA, 1
Azkoaga, Ferrerías 5. 943 79 15 15

EGUAZTENA, 2
Azkoaga, Iturriotz 33. 943 79 79 99

EGUENA, 3
Corcuera, Maisu Aranbarri 1. 943 79 22 26

TELEFONO JAKINGARRIAK

ERIETXEAK
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Iguualatorioa. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea. 943 79 90 11

LARRIALDIK
SOS Deiak. 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA. 943 78 71 57

ANBULATORIOAK
Guardiako medikua. 943 46 11 11
Astelehenerik egubakoitzera. 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan. 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa

Arrasate
Astelehenerik egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara

- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak. 943 03 53 11
- Ikuskatzailea. 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak. 943 03 53 11

ANBULANTZIAK
Gipuzkoako Anbulantziak. 943 45 87 44

ERTZAINZA
Arrasate. 943 79 71 99

SUHILTZAILEAK
Udal taldea. 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea. 088

MATXURAK
Urak (Udal Zerbitzua). 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero). 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
943 79 78 44

GARRAIOAK
Taxiak. 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK
Iturbide egoitza. 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza. 943 79 81 57

MONTEIRON LIBURUTEGIA
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna)	San Andres eliza Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza Zapatua 19:00 (elebiduna)	Santa Teresa eliza Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)	Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) Santa Marinako eliza Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna)	Domeka 12:00 (gaztelaniaz)
Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	

OHARRAK

SAN MIGELAK GARAGARTZAN
San Migelak ospatuko dituzte Garagartzan. Gaur, egubakoitza, 19:30ean, Ikurrinaren igoerarekin hasiko dira eta domeka iluntzera arte iraungo dute.

ARRASATEKO YOGA ELKARTEA
Yoga Elkarteak hainbat ikastaro antolatu ditu: yogaren hastapena, masa-jea, bioenergetika eta errealizazio pertsonala. Izena eman Jose Luis Inarrako egoitzan edo 943 79 66 98 telefonoan.

LITERATURA SOLASALDIK
Urriatik aurrera, Udal Liburutegiak literatura solasaldiak egingo ditu. Hilean behin egingo dituzte. Batzuk euskaraz izango dira eta beste batzuk gaztelaniaz. Izenematea urriaren 4an amaituko da.

KATEKESIA HASTERA DOA
Urriaren 8an, San Frantziskoko 2. mailakoen katekesia hasiko da. 3., 4. eta 5. mailakoak 9an hasiko dira, eta 1.go mailakoak azaroan.

EA-REN XVI. URTEURRENA
Domekan, 11:00etan, meza, San Frantziskon. 12:15ean, mitina egingo dute Begoña Erraztik eta Carlos Garai-koetxeak, Monterronen. Horren ondoren, bazkaria izango da Alkartetxean.

AEDren AGENDA

GAZTE ERAGILE BERRIA
Curriculumak jaso eta elkarrizketak egin ondoren, Irati Pagoaga da AEDko gazte eragile berria.

ZAHARBERRIREN DEIA
Zaharberri izena emateko epea zabaldu du. Horrez gain, Zaharberri lan egiteko eragilea behar dute. Bidali curriculumak, lehenik eta behin, AEDra.

URBANOEN ORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Inarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Txirrindulari Elkarteak jende bila ibili zen

Arrasateko Txirrindulari Elkarteak jende berriaren bila ibili zen. Elkarteak kargu guztiek euren ardurak bertan behera uzteko erabakia hartu zuten. Zuzendaritza batzorde berriaren eginbehar garrantzitsuena 1994ko Euskal Herriko Itzuliaren irteera antolatzea izan zen.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Lakatzak”



Mozkorra, mozkorraldia, atxurra. - Azelakotxe lakatzak arrapau zeban!

HAUGIROA!

MINIMOA Martitzena, 24	7°C
MAXIMOA Egubakoitza, 20	31°C
ASTEKO EURIA (l/m²)	13,3 L
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 18	28°C 15°C 2,9 l/m²
Eguena, 19	29°C 13°C - l/m²
Egubakoitza, 20	31°C 14°C - l/m²
Zapatua, 21	24°C 13°C 10,4 l/m²
Domeka, 22	21°C 15°C - l/m²
Astelehena, 23	19°C 10°C - l/m²
Martitzena, 24	17°C 7°C - l/m²

Bergarako San Juan azoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Ume biak hartu eta denok mendira!

Inesendako eta Txisa-rendako ez da oztopoa ume bi izatea. Hamar hilabeteko bikiak dituzte, Oihan eta Ane. Hala ere, sarritan joaten dira mendira umeekin. Bizkarrean umeak hartu, eta lasai asko abiatzen dira, hori bai, 2.000 metro gaintu barik. Gurasoekin izan gara, eta zapatuan eta domekan, 11:00etan, elkarrizketa errepikatuko dugu. Josemari Astigarraga ere irratian izan zen. Parrokoa Arrasateko joateko dagoenez, luze egin dugu berba harekin.



Maritxu Kajoi ilunkaran zuzen-zuzenean izango da zuekin Arrasate Irratia

Iaz bezala, aurten ere kalera irtengo da Arrasate Irratia. Datorren egubakoitz ilunkaran, arratsaldeko zortzietan, zuzeneko emanaldia egingo dugu herriko plazatik. Une horretan jendez gainezka izango da plaza, eta hango giroaren berri emango dizuegu. Ordu-bete inguru iraungo du saioak, eta, hortaz, etxean edo lantegian zaudetenok izango duzue aukera jaia zuzenean jarraitzeko. Halaber, kontalari aritzeaz gainera, plazan batutako

hainbat lagunekin berba egingo dugu.

ORDURO ALBISTEGIA
Astelehenean, neguko saioak hasiko dira. Hemendik aurrera, Euskadi Irratiak ordurua eskaintzen dituen albistegiak izango dira entzungai herriko irratian. 09:00etan hasiko dugu albistegia, baina 10:00etatik 13:00ak arte orduroko albistegiak eskainita. 13:00etan, Euskadi Irratiaren albistegi orokorra izango duzue.

ASTEABIHITZETAN

Hollywoodetik Arrasate irratira

Uda honetan AEBetan izan dira Aitor Mantxola eta Aitor Perosterena oñatiarrak film baten filmatze lanetan, eta egubakoitzean Arrasate Irratian izan ziren, han bizi izandakoa kontatzen. *Skin deep* izeneko thriller-ean produkzio eta argazki zuzendari lanetan ibili da Mantxola, eta Perosterena, berriz, dekoratzaile.

Aitor Perosterena *Ilargi* izeneko laburrean parte hartua zuen lehenago Mantxolarekin berarekin; Mantxolak, berriz, esperientzia handia du bizkar gainean, makina bat film labur eta 10 film luze egin ditu-eta.

Alzheimerraren gainean berbetan

Alzheimerra buruko zelulei edo neuronei eragiten dien gaixotasuna da. Ez du jatorri ezagunik, baina alzheimerra duen gaixoa nortasuna galduz joaten da poliki-poliki, eta funtzio intelektualaren galerak ere gero eta handiagoak dira.

Gaixotasun horren gainean asko daki Luis Galdos oñatiarrak. Txagorritxuko ospitaleko Neurologia Sailean egiten du lan. Eguenean Monterron jauregian izan zen berbaldia egiten.

Ezustekoa udaletxean

Martitzen ilunkaran poltsa bat ahaztu zuen norbaitek udaletxe parean. Udaltzainek poltsa umeren batena-edo izango zelakoan itxarotea erabaki zuten, baina, minutuek aurrera egin ahala, inor ez zen joan poltsa jasotzera, eta, azkenean, ertzainei deitzea erabaki zuten. Ertzaintzaren artezilariak gaueko hamar eta erdietan iritsi ziren, eta lehenengo egin zutena Erdiko eta Iturriotz kaleak ixtea izan zen. Gaueko hamaika eta erdietan etxerako bidea hartu zuten guztiek, poltsa arrunt bat zela ohartuta.



Pintxo Eguna Arrasaten

Zapatuan, Pintxo Eguna ospatu zuten Arrasaten. Eguna horrek helburu bi zituen: batetik, Txikitxu dantza taldeari ekonomikoki laguntzea; eta, bestetik, Giokela izendapena duten harategien berri eman. 3.000 pintxo egin zituzten; hortaz, erdiko plazara joan zirenek izan zuten zer jan.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Musika kontuak edonon

Azken egunotan, musikak zeresan handia eman du Arrasaten. Batetik, asteburuan, *Askatasun Taupaden* baitan Gara-gartza bidean jarritako karpa erraldoian rock kontzertu mordoa ikusgai egon dira. Eskerrak, aspal-dian gaztetxe barik, halako kontzertuen hutsunea sumatzen genuen eta.

Bestetik, aurrez jakinara-

zi genizuen Arrasateko Goikobalu abesbatzak abeslari berriak behar dituela. Izan ere, Euskal Herrian zein Espainiako Estatuan halako izen ona lortu duen abesbatza hori muntaia handiak prestatu ahal izateko jende gehiagoren faltan dago.

Musikarekin jarraituz, herriko beste elkarte ekimentsu batek, Al Andalusek,

Arrasateko Lehenengo Cante Flamenko Txapelketa antolatu du. Zapatuan, Al Andalus elkartearen bertan, lehenengo finalerdia egingo dute eta Euskal Herriko eta Espainiako hamazortzi abeslari lehiatuko dira. Zorionez, Al Andalusek urtetan egin duen lanaren ondorioz, herriaren kultura aniztasuna sendotuta dago (oraindik ere gehiago sendotu beharko litzateke!). Are gehiago, gure artean geroago eta flamenkozale gehiago daude.

ASTEKOIRUDIA



JULEN IRIONDO

EGUBAKOITZEAN GARIBAI ETORBIDEA ITXI EGIN ZUTEN AUTORIK GABEKO EGUNA OSPATZEKO

Domekan Autorik Gabeko Eguna ospatu zuten Europa osoan. Arrasaten, joan den aste osoan, autoa gehiegi erabiltzeak dakartzan ondorio kaltegarriez herritarrak ohartaraztea helburu zuten hainbat ekintza egin zituzten. Mugikortasun jasangarriaren aldeko astea izan zen aurrekoa, eta, bes-

teak beste, berbaldi bi izan ziren Monterronen, nahiz eta lehena bertan behera geratu jenderik ez zegoelako. Egubakoitzean, Garibai etorbidea itxi egin zuten, eta zerbitzu publikoek bakarrik zeharkatu ahal izan zuten Garibai etorbidea. Domekan autorik ez erabiltzeko gomendioa egin zuen Udalak. /X.U

LILURA

OIHALAK

Diseina ezazu Marixutarako zure gustuko soinekoa. Esku-poltsak, eskularruak, galtzerdiak...

Zerkaosteta 5, behea. ARRASATE. Tel.: 943 79 89 72

UGARTE

Industria hornidurak

San Andres auzoa, 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943-71 21 41
Faxa: 943-71 21 40

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotritizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE

Hauteskunde sindikalak egiten ari dira bailaran, eta, jakina, Arrasaten

UBANE MADERA

Orain hasi eta urte hasierara arte, hauteskundeetan murgilduta ibiliko dira Debagoieneko lantegien %60. Arrasaten, esate baterako, Aita Menni, San Juan de Dios, Lagun Aro eta Polmetasa lantegietan aukeratuko dituzte ordezkari sindikalak.

Irailean hasi eta urtarrila ingurura artekoak izango dira hauteskunde sindikalak. Lau urtean behin egiten dituzte horrelako hauteskundeak, lehengo legeak horrela zehazten zuen-eta. Horrela, hasieran esan bezala, orain aukeratuko dituzte ordezkariak %60. Hortaz, sindikatuendako garrantzi handia dute, hurrengo lau urteotako ordezkariak era bakiko dute-eta lantegietan.

ARRASATEN

Arrasateri begira, eta lantegi handienak kontuan hartuta, Utillajes Uribesalgo lantegian, adibidez, urrian egingo dute bozketa; Aita Menni eta San Juan de Dios ospitaleetan, azaroan, baita Lagun Aron eta udaletxean ere. Abenduan, Polmetasari eta Trefasari tokatuko zaie; urtarrilean, eskualde ospitaleari; eta otsailean, Man-



Eskualde ospitalean urtarrilean egingo dituzte hauteskundeak.

komunitateari eta Gelmari. Ikusten den moduan, herriko lantegi garrantzitsu ugari falta dira. Horietan hauteskunde sindikalak beste garai baten egiten dituzte, beranduago.

EGINDAKOAK

Era berean, zenbait lekutan dagoeneko bukatu dituzte hauteskundeak. Esaterako, ASMOBn LAB sindikatua irten da garaile eta AUKEAn, Memesan eta Iturbide

Fundazioan, berriz, ELAk irabazi du.

ELA NAGUSI

Duela lau urteko hauteskundeetan ELAk lortu zuen Arrasaten gehiengo; denera, 197 ordezkari aukeratu zituzten eta horietatik %37,06 eskuratu zituen. LAB izan zen bigarren, ordezkariak %24,37ekin. CCOO eta UGT, berriz, hirugarren lekuan geratu ziren, ordezkariak %14,21ekin.

Aparkaleku gehiago Santa Marinan, eta Otaloran asfalto lanak

UBANE MADERA

Santa Marina auzoan laurogei aparkaleku egitea onartu du oraingo astean Gobernu batzordeak. Horrez gain, Otalora Lizentziaduna kaleko errepide zati baten lanak egiten hasi dira. Eta datorren astean, Monterron pareko zatia zolatatu egingo dute.

Aspaldian lan ugari ikusten ari gara Arrasaten, eta badirudi

aurrerantzean ere horrela segituko dugula. Horren adibide da oraingo astean beste bi lan abian ipini dituela Udalak.

Batetik, Santa Marina auzoan aparkalekuak egitea erabaki dute. Hain zuzen ere, Galizia kaleko lur-zati baten laurogei aparkaleku egingo dituzte. Udaleko zerbitzu teknikoek aurkeztutako txostenak dioenez, auzo horretan "aparkalekua egiteko aukera eta beharra dago". Gainera, eta "proiektuak herritarrengan duen

interesa ikusita eta adjudikazioa lehenbailehen egiteak duen inportantzia azpimarratuta, proiektuari dagokion espedienteak presako tramitazio bidez egitea proposatzen da". 106.000 euro pasatxoko inbertsioa zehaztu du Udalak lanotarako.

OTALORAN ZOLADURA

Bestalde, Otalora kalean lanean hasi dira oraingo astean. Hain zuzen ere, Monterron pareko errepide zatiko erretanak konpontzen ari dira. Helburua da, horrekin bukatu eta gero, zati horretan zoladura lanak egitea. Anabel Hernández udal teknikariak jakinarazi digunez, zulo ugari ditu errepideak, eta horrexegatik zolatuko dute. Era berean, espaloietako zintarriak ere konponduko dituzte.

Esandako moduan, oraingo astean hasi dira lanean, eta espero dute oraingo astean bertan bukatzea erretanak konpontzen. Horrenbestez, lehenbailehen hasiko dira gero zoladura lanean, euren ustetan, datorren astean bertan. 16.500 euro pasatxoko aurrekontua onartu dute. Lan horien ondorioz, errepidearen noranzko bat itxi egingo dute eta ibilgailuen joan-etorria txandaka egin beharko dute.



UBANE MADERA

Martitzenean hasi ziren errepideko erretanak konpontzen.



Etorri dira Arrasateko parroko berriak

UBANE MADERA

San Juan eta San Andres parrokiak lepo bete ziren herrira etorri diren bi parroko berriei ongietorria egiteko. Besteak beste, Juan Maria Uriarte gotzaina han izan zen.

San Juan parrokian lehenengo eta San Andreskoan gero aurkeztu zituen Gipuzkoako gotzain nagusi Juan Maria Uriartek Arrasatera etorri diren bi parrokoak. Genaro Lekuona da bata, 62 urteko bergararra; azken urteak Azkoitian eman eta gero etorri da San Juan parrokiara, Arrasateko parroko izatera. Besteak, berriz, Jon Molina du izena, aretxabaletarra da, 32 urte ditu eta orain dela lau urte abadetu zen.

Orain arte Ikaztegieta izan da lanean, eta hemendik aurrera San Andresko parrokiaren arduraduna izango da.

JENDE UGARI


Jende ugari parte hartu zuen abade berriak aurkezteko esan ziren bi mezetan. Tartean, abebatzak ere abestu zuen. Eta, jakina, Arrasatek joango diren bi parrokoak ere, Jose Maria Astigarraga eta Juan Jose Goenaga, han izan ziren, nor bere parrokiaren. Horiekin batera, Arrasateko gainerako parrokoak ere izan ziren aurkezpen mezan.

Bestalde, gogoratu datorren domekan egingo diotela agurra orain arte Arrasateko parroko izandakoari, Jose Maria Astigarragari, alegia.



Garagartzan San Migelak

Egubakoitzetik domekara garagartzarrak jairik jai ibiliko dira. Barikuan, adibidez, laminei eta Neanderthal gizonei ongietorria egingo diete, 00:00etan. Zapatuan, eguerdian zein arratsaldean, jolasak izango dira; gero, 18:00etan, autoen Garagartzako III. saria. Eta domekan, goizean, meza eta dantza izango dira, auzo bazkaria ondoren, eta arratsaldean, erromeria.



UBANE MADERA

Argazkiko automobileen ikusten da herdoilak eraginda zelan geratu den ibilgailuaren txapa.

INGURUMENA/ Fagor Ederlan salatu dute, ustez kutsatzeagatik

Salaketa bi Fagor Ederlanen kontra, ustez kutsatzeagatik

UBANE MADERA

Uztailean salaketa bat eta irailean beste bat izan ditu Fagor Ederlanek. Biak hala biak, ustez kutsadura sortzeagatik. Salatzaileren esanetan, inguruan aparkatutako ibilgailuetan eta inguruko lantegietan eragin ditu kalteak. Edozelan ere, Fagorrek legea betetzen du.

LASA izeneko enpresak ipini zuen uztailean Fagorren kontrako salaketa Arrasateko Udalean. Esaten zuenez, Fagor Ederlanen (mekanizatuak) emisioek kalte handiak eragin ditu bai han inguruan aparkatuta dauden ibilgailuetan baita inguruko lantegietan ere. Lantegiko behargin batek kontatu digunez, "guztia herdoiltzen du. Pabilioiaren kanpoaldea, adibidez, herdoilduta dago guztiz, baita aire girotuaren filtro guztiak ere". Gauza bera gertatzen ei da han aparkatuta izaten diren ibilgailuekin; guk ikusi ahal izan dugunez, bat edo beste oso herdoilduta daude. Eta gaineratu digu lantegi aurreko belarra gori-gori ei zegoen, berritzen hasi diren arte. Gauza bera gertatzen da han inguruko pasealekuarekin ere; lurzorua gorri-gorri dago, hautsarekin.

URTE HASIERAN GEHIAGO

Lekuko batzuek kontatu digutenez, urtarril-otsaila aldera hasi ziren geroago eta zikinkeria gehiago igartzen. Eta orduan hasi ziren aseguruarekin erreklamazioetan. Baina ezer ez zutenez lor-

Urtarril-otsaila aldera hasi ziren geroago eta zikinkeria gehiago igartzen

Eusko Jaurlaritzak ezarritako kutsadura mugak betetzen ditu Fagor Ederlanek

tzen, salaketa ipintzea erabaki zuten.

Egindako salaketarekin kalte-tutakoek eskatzen dute automobilak zein pabilioiak margo-tzea, eta horrela herdoildutakoa konpontzea.

IRAILEAN, BERRIRO

Irailean, berriz, beste salaketa bat jaso zuen Arrasateko Udalak. Berriro ere Fagor Ederlanen kontrakoa zen, baina, oraingoan partikular batek egindakoa. Salaketa horren kasuan ere, esaten zuen Uribarriko lantegiaren emisioak kalteak eragiten dituela, besteak beste, han gertu aparkatutako autoetan.

Bi salaketei aurre egiteko, Udalak erabaki bera hartu zuen:

salatutakoa egiaztzeko ikerketa egitea; Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saila jakinaren gainean ipintzea eta Fagorri hila-beteko epea ematea, gura badu, zerbait argitzeko.

LEGE BARRUAN

Kontuak kontu, gauza da Fagor Ederlanek legea betetzen duela. Hau da, Eusko Jaurlaritzak badi-tu ezarritako kutsadurarendako muga jakinak, eta Fagor Ederlan muga horien barruan dago, alde handiarekin, gainera.

Inmaculada Rodríguezek, Iru-di eta Komunikazio arduradunak, adierazi digunez, "gustatu-ko litzaguke lantegiek inolako zikinkeriarik ez botatzea, baina, automobilerik ere botatzen dituzte eta hor dabilta". Horrekin batera, nabarmendu digu lantegi geroago eta garbiagoa izateko etengabe ari direla lanean, eta horren adibide dela AENORrek emandako ISO 14.000 ziurtagiria. Inmaculada Rodríguezek esanetan, Fagorren hondakinei ematen dieten tratamendua antzerako lantegietan ematen zaiena baino askoz ere hobea da, punta-puntakoa. Are gehiago, Fagorreko ordezkariak GOITBri adierazi-takoaren arabera, urtarriletik hona hiru bider neurtu dituzte kutsaduraren neurriak eta guztietan lantegiak legea behar bezala betetzen duela ikusi dute. Horrez gain, Fagor Ederlan Eusko Jaurlaritzarekin, Udalarekin eta Bizirik talde ekologistarekin harremanetan da arazoa ahalik eta bizkorren konpontzeko.



Arriskutsuak izan daitezkeen txakurren errolda egingo dute

UBANE MADERA

Arriskutsuak izan daitezkeen arrazako txakurren bat dute-nek urriaren 31ra arteko epea dute txakurra herriko Udalean erroldatzeko. Hala agindu du Espainiako gobernuak.

Madrilgo gobernuaren errege-dekretuak agintzen duenez, mota horretako txakurrak erroldatze-az gain, hemendik aurrera, nor bere udalerriko Udalaren baimena derrigorrezkoa izango da arriskutsua izan daitezkeen txakurraren jabe izateko. Eta, txakur horiek edukitzeko baldintzak bete ezean, Udalak baimena ukatu egin dezake. Baimen horiek bost urte-rakoak dira; gero, berritu egin beharra dago. Honako txakur

hauek dira erroldatu beharreko-ak: pit bull terrierra, staffordshire bull terrierra, rottweilerra, Argentinako Dogoa, Amerikar Stafordshire terrierra, Brasiliar fila, Tosa Inu eta Akita Inu.

Arrasateko Udala ere dagoe-neko hasi da zerrenda horretan dauden txakurren errolda egiten.

BALDINTZAK

Mota horretako txakurrak eduki ahal izateko bete beharreko baldintzetako batzuk hauek dira: adinez nagusia izatea, aurrekari penalik ez izatea, gaitasun fisiko eta psikologikoa egiaztatzen duen agiria izatea eta txakurra aseguratzea. Horrez gain, zinpean aitortu behar du lehenago ez duela arriskutsuak izan daitezkeen txakurrekin lotu-tako inolako zigorririk jaso.



LABUR

Makatzena auzoa berriro urbanizatzeko asmoek aurrera jarraitzen dute

Makatzenaren egoeraren gaineko diagnosis egin zuen Udalak apirilean. Orain, Makatzenako auzotarrek txosten horri egindako iradokizunak erantzun ditu Udalak. Hortaz, hemendik aurrera, Asmatu eta Eraiki enpresek hiru hilabete dute auzoa berritzeko proiektua idazteko. Auzotarrek egindako iradokizunetako batzuk onartu egin ditu Udalak, eta beste batzuk, ez. Adibidez, ez du onartu Makatzenako erreka-stoa tapatzea han aparkalekuak egiteko; ezta bolatokiaren gaineko proposamena ere. Udalaren esanetan, bolatokia proiektu horretatik lekuz kanpo legoke. Aldiz, onartu du eraikinen hegala bertan behera uztea, hortaz, baztertu egin du eraikinen beheko solairuak etxebizitza bihurtzea.

Arrasateko Eusko Alkartasunak alderdiaren XVI. urteurrena ospatuko du domekan


Arrasateko Eusko Alkartasunak aurten hamasei urte beteko dituela ospatuko du etzidamu, domeka. Eta gonbidatu bereziak etorri-ko dira Arrasateko urteurren ospakizunera: Carlos Garaikoetxea eta Begoña Errazti alderdikideak, besteak beste. Ospakizunekin hasteko, hildako alderdikideen aldeko meza entzungo dute San Franzisko elizan, goizeko hamaiketan. Mezaren ostean, hamabi eta laurdenetan, Garaikoetxeak eta Erraztik mitina egingo dute Monterron jauregian. Eta, bukatzeko, ordu bi eta erdietan, bazkaria izan-go dute alderdiaren elkartean, Alkartetxean. Bazkari hori aprobetxatuko dute Arrasateko alderdikideek Carlos Garaikoetxeari omenaldi beroa egiteko.



'ASKATASUN TAUPADETAN' IZAN ZEN ZER AUKERATU

Amnistiaren aldeko mugimenduak 25 urte bete dituela-eta, joan den asteburuan, *Askatasun Taupadak* jaia izan zen Arrasaten. Nahiz eta eguraldiak bizkarra eman, Euskal Herriko hainbat lekutatik etorritako milaka lagunek Arrasateko kaleak bete zituzten. Jaia zapatuan hasi zen, baina egun garrantzitsua domekakoa izan zen. Domekako ekitaldiak kalejira erraldoiarekin hasi ziren. Horren ondoren, eguerdiko ordu bata eta erdiak aldera, ekitaldi politikoa izan zen Monterron parkean. Monterronen bertsolariak eta Anje Duhalderen kontzertua izan ziren arratsalde partean. Iturripe kiroldegian, berriz, umeendako gunea izan zen nagusi. Iturripera hurbildu ziren umeek hainbat jokoz eta antzerkiz gozatu ahal izan zuten. Horrez gain, gune berean herri bazkaria izan zen, eta arratsalde partean, Alaitz eta Mainerren kontzertuaz gozatzeko aukera izan zen. Azkenik, Garagartzara bidean jarritako karpan kontzertuak izan ziren nagusi, bai zapatu gauean baita domeka arratsaldean ere.





Jon Muruamendiarazek gola sartzeko aukera garbia izan zuen lehenengo zatian.

XABIER URZELAI

FUTBOLA

Mondrak garaipen zaporeko berdinketa lortu zuen Atxabalpen

Oriokok uste baino hobeto jokatu zuen, eta etxekoek azken unean berdindu zuten

XABIER URZELAI

Mondrak 2-2 egin zuen Orioko taldearen kontra denboraldiko lehenengo partiduan. Kanpotarrek lehenengo zatian egin zituzten gol biak, eta arrasatearrek bigarren zatian egin zituzten euren biak. Azken gola, Jokin Pavok egin zuena, partidua amaitu baino minutu erdi lehenago iritsi zen.

Denboraldiko lehen partidua irabazteko partidua zen, baina ez zen irabazi, berdindu egin zen. Hala ere, Atxabalpen izan ziren jarraitzaileak garaipen zaporedun berdinketarekin joan ziren etxera, Mondraren berdinketaren gola partidua amaitzeko oso gutxi geratzen zenean etorri zen-eta.

ORIOKO, USTE BAINO HOBETO

Orioko taldea uste baino hobeto ibili zen zapatuan. Ezin esan daiteke Mondrak baino hobeto jokatu zuenik, baina zelaian ondo kokatzen den talde horietako bat dela argi eta garbi erakutsi zuen. Mondrak izan zuen baloia jabetza, baina partidua aurretik egindako euri zaparradak zelaia busti-bustita utzi zuen eta

Oraingo asteburuan Mondrak Idiazabalen kontra jokatuko du, kanpoan

baloia kontrolatzea ez zen lan erraza, eta pase luzea egiteak baloia galtzea zekarren. Oriotarrek laster konturatu ziren horretaz, eta lehenengo zatian egindako gol biak falta eta aldaratze bana aprobetxatuta egin zituzten. Mondrak horrelako jokaldietan erakutsi zuen ahulezia; gainontzean, Oriokok ez zuen Mondrak baino gehiago egin.

BIGARREN ZATIAN, ALDAKETAK

Bigarren zatian gauzak dezente aldatu ziren. Josu Zubiak hiru aldaketa egin zituen bata bestearen atzetik, eta arrasatearrak emaitzari buelta emateko asmoz irten ziren. Oriokok defendatu baino ez zuen egin bigarren zati osoan, eta ondo egin, gainera. Hala ere, Iker Lópezen eta Jon Muruaren jokaldi bati esker,

Asier González atezainaren aurrean geratu zen, eta *Tiri-k* ez zuen barkatu. Mondrak estutzen jarraitu zuen, eta horrek ere bazuen bere arriskua; izan ere, Oriokok baloia eskuratzen zenean kontraeraso arriskutsuak egiten zituen, eta kontraeraso horietako bat gelditzeagatik kaleratu zuen epaileak Andoni Azpiazu atzelari arrasatearra. Bat gutxiagorekin jokatuta ere arrasatearrak ez ziren kikildu, eta partidua amaitzear zegoela Jokin Pavok berdinketaren gola egin zuen. Oriotarrek ez ziren pozik geratu partidua luzapenarekin, eta protestatu ere dezente protestatu zuten.

BADAGO ZER HOBETU

Partiduan etxeko jokalarien artean berba gehiago egitea sumatu zen faltan. Balo asko berba egin da irabazten dira, eta baloirik ez galtzeko ere berba egin behar da. Taldea animatzeko ere berba egin behar da, eta horixe egin behar du taldeak, berba.

Horrez gain, nahiz eta giroa epel egon, zelaitik kanpo jarrera apur bat txukunagoa edukitzea ere ez dago soberan. Hori ere hobetzeko kontua da.

HYUNDAI KOPA

Ander Corcuera pilotu arrasatearra seigarren postua eginda itzuli da Valentziatik

Ander Corcuera pilotu arrasatearrak lan polita egin zuen joan den asteburuan korritutako Hyundai Kopan. Mondragoetarra eguaztenean abiatu zen Valentzia aldera, eguenean eta egubakoitzean entrenamenduak zituen-eta. Sailkapen-lasterketa bi izan zituen zapatuan; lehenengo lasterketan bosgarren iritsi zen helmugara eta bigarren lasterketan, hemeretzigarren.

Lasterketa ofizialak domekan izan ziren. Arrasatearra hama bigarren postuan irten zen lehenengo lasterketan, baina irteera kaskarra egin, eta hainbat autok aurre hartu zioten. 22. postuan ere egon zen, baina bolada on bati eutsi eta hamahirugarren lekuan iritsi zen helmugara. Bigarren lasterketa hobe izan zen. Ia lasterketa osoa laugarren postuan egin zuen, eta podiuma eskuratzeko aurreko autoarekin borrokan ibili zen, baina, azkenean, bi autok aurre hartu zioten. Azkenean, seigarren.

TXIRRINDULARITZA

Domekan ehun lagun inguru elkartu ziren Arrasaten egindako zikloturisten martxan

Domekan ehun lagun inguru ibili ziren Arrasateko Debagoiena Zikloturista Taldeak antolatutako martxan. Zikloturisten esanetan, proba ondo antolatu zuten. Goizeko bederatzietan irten ziren eta ehun kilometro inguru egin zituzten. Ibilbide polita izan zen, gutxi gorabehera, hiru ordu eta erdian egitekoa, nahiz eta Untzillako igoeran, Suñatik, batzuek ederto sufritu.

FOTOKIROLA



Eskubaloiko talde biak, hasteko zain

Aurtengo denboraldian ere Arrasateko talde bi izango ditu senior mailan. Liga txapelketa urriaren 12an hasiko dute, eta aurtengo ere Bernardo Balerdi eta Jesus Mari Herrero arituko dira taldeok zuzentzen. Eskubaloiko talde biek aspaldi hasi zituzten aurrendenboraldiko entrenamenduak, eta gogotsu ari dira. Arrasateko eskubaloiko taldekoak egunero entrenatzen dira, nahiz eta ikasketengatik eta lan kontuengatik ezin izaten duten guztiek elkarrekin entrenatu. /X.U.

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

ELKARRIZKETA

INES ETA CESAR / SEME-ALABEKIN ESKALATZEN DUEN BIKOTE ARRASATEARRA

"Umeak dituzten gurasoei kirola egiteko gomendatuko genieke"

XABIER URZELAI

XABIER URZELAI

Mendira familia guztia joaten da: Ines, Cesar, Oihan, Ane eta txakurra. Bosteko familia hori hara eta hona ibiltzen da asteburuetan. Mendian gheinetan, ez bada ibiltzera, eskalatzera, baina mendira beti.

Zelan konpontzen zarete guztiok mendira joateko?

Jendeak uste duen baino hobeto. Argi dago pisu mordoan eraman dugula, umeekin gauza mordoan eraman behar dugulako. Laster txakurrari alportzak erosi dizkiogu, hark ere zama era-

maten lagun dezan.

Mendira joateko zaletasuna izan duzue beti; muga izan da umeak edukitzea?

Ez nuke esango muga denik, baina zailtasun handiagoak izaten dira. Zerbait egiteko gogoaz gero, ez dago mugarik, baina zailtasunak kontuan hartu behar dira.

Pirinioetara joaten zarete zelan moldatzen zarete?

Orain arte furgonetan joan izan gara, baina orain karabana erosi dugu eta askoz hobeto moldatu gara. Lehen baino leku handiagoa izan dugu, eta ederto ibili gara.

Zer gomendatuko zenie-**te umeak dituzten gurasoei?**

Umeak zaintzerakoan tentsio handia sortzen da, eta, gure ustez, kirola egitea nahitaezkoa da. Tentsio guztiak kentzen ditugu, eta elkarrekin ederto pasatzen dugu korrika egiten edo eskalatzen. Kirola egiteko gomendatuko genieke umeak dituzten gurasoei.

Daukazuen amets bat?

Umeekin eskalatzea. Hori gure ametsetako bat da, baina gurago dugu horretan askorik ez pentsatu. Ikaragarria izango litzateke Riglos-era edo Naranjora seme-alabekin joatea eta eurekin eskalatzea. Gero, batek daki eskalatzea gustatuko zaien.

Arrasate Yoga Elkartearen hainbat ikastaro abian

XABIER URZELAI

Arrasateko Yoga Elkarteak hainbat ikastaro jarriko ditu abian datorren hilabetean. Urrik abendura arte yoga, masaje, errealizazio pertsonal edo bioenergetika ikastaroen parte hartzeko aukera izango da.

Urria heltzarekin bat, Arrasate Yoga Elkarteak hainbat ikastaro jarriko ditu abian. Yoga, masaje, errealizazio pertsonal edo bioenergetika ikastaroen parte hartzeko aukera izango da. Ikastaro batzuk urriaren 9an hasiko dira eta beste batzuk urriaren 11n. Amaitu ere, batzuk abenduaren 9an amaituko dira eta beste batzuk abenduaren 11n. Hori bai, guztiak iraupen bera izango dute: hilabete bi.

YOGA ETA MASAJE IKASTAROA

Yoga ikastaroa egin gura duenak eguaztenetan izango du hitzordua, eta hiru saio izango ditu aukeran: lehenengo saioa goizeko hamarretan izango da; arratsaldeetan saio bi izango dira, lehena sei eta erdietan izango da eta bigarrena iluntzeko zortzi eta erdietan. Bestalde, Masaje ikastaroa egun bi lehenago hasiko da, urriaren 9an. Iraupena gainera-

ko ikastaroen berbera izango da, baina abenduaren 11n amaitu beharrean abenduaren 9an amaituko da. Masaje ikastaroa aste lehenetan izango da, eta Yogako ikastaroen ordutegi bera izango du, goizeko hamarretan, arratsaldeko sei eta erdietan eta iluntzeko zortzi eta erdietan, alegia.

ERREALIZAZIO PERTSONALA

Errealizazio pertsonaleko ikastaroak ere izango dira Arrasateko Yoga Elkartearen. Helburua nor bere burua ezagutzea izango da, eta, besteak beste, autoestimua eta autokontrola landuko dituzte. Eskolak eguaztenetan izango dira, arratsaldeko zortzietan. Informazio gehiago gura duenak 943 79 35 76 telefonora dei dezala eta Jose Luisengatik galdetu.

BIOENERGETIKA IKASTAROA

Azkenik, Bioenergetikako ikastaroen besteak beste, gorputza mugitzea, dinamizazio energetikoa, gorputzaren tentsioak eta integrazio bioenergetikoa landuko dituzte.

Bioenergetika ikastaroa urriaren 9an hasiko da eta eskolak eguaztenetan izango dira, arratsaldeko sei eta erdietan. Ikastaro horren gaineko informazio gehiago gura duenak dei dezala 616 96 57 95 telefonora.



ARRASATE PRESS

Ikastaro guztiak hilabete bi iraungo dute.

BASATI
TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
TEL. 943 711762



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis • Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxe: 943 - 79 78 14
ARRASATE

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99



IKER BARANDIARAN

Asier Leatzek, Saioa Ibáñezek, Ruben Arriolabengoak eta Nerea Urbietak prentsaurrekoa egin zuten.

KULTURA / Arrasate, Donostia eta Gasteiztik, gaur egungo dantzaren emankizuna

Bihar, zapatua, gaur egungo dantza Amaia antzokian

IKER BARANDIARAN

Dantzaren azkeneko joerak ezagutzeko aukera ezin hobea izango dugu bihar, zapatua, Amaia Udal Antzokian. Izañ ere, 20:30ean, hainbat arrasatearrek, gasteiztarrek eta donostiarrek prestatutako hiru emankizun egongo dira ikusgai.

Bihar, zapatua, gaur egungo dantzako hiru emanaldi egingo dituzte Amaia Udal Antzokian, 20:30ean. Udaleko Gazte Sailak gaur egungo dantza gurera ekarri gura izan du, eta, horretarako, dantzaren gaineko hiru emankizun berritzaile batu ditu: bateetik, Donostiako Nerea Urbietaren *Fiesta Plantana*; bestetik, Gasteizko Ikutu taldearen *Bostak S 2*, eta, azkenik, Arrasateko Saioa Ibáñez dantzariak eta Asier Leatzek musikariak prestatutako *Ihes Puntuak* lana.

ARRASATEARREK EGINDAKO MUNTAIA

Saioa Ibáñez arrasatearra lehen ere izan dugu berbegai ARRASATE PRESSen. Saioak Bartzelonan eta Amsterdamen dantza ikasketak egin zituen, eta Arrasaten behin baino gehiagotan eman ditu gaur egungo dantzako eskolak, eta zapatuan, lehenengo aldiz egingo du dantza Amaia antzokian. Saioaren lehengusu Asier Leatzekin batera, musika eta dantza uztartuko dituen *Ihes Puntuak* lana prestatu du.

Baina arrasatear horiek egingo dako lanaz gain, beste koreogra-

fia bi ikusgai izango dira: Nerea Urbietaren donostiarrak inprobisatuziotik abiatuta pertsonaia bat sortu du eta antzerki kutsu handia daukan lana osatu du. Nereak *Fiesta Plantana* lana lehenengo aldiz eskainiko du Euskal Herrian, Amaia Udal Antzokian.

Azkeneko lana, *Bostak S 2*, Gasteizko Jorgek, Ruthek eta Adrianek prestatu dute. Lan horrek ere musika, argiztapena eta, batez ere, dantza eta koreografia uztartzen ditu.

Bihar, zapatua, Amaia Udal Antzokian ikusgai izango den

saio berritzaile bakoitzak ordu laurden iraungo du.

Arrasateko Udaleko kultura teknikari Jon Garaik azaldu zuen moduan, zapatukoa Arrasaten dantza ikusteko dagoen ohitura eskasari buelta emateko aukera aproposa izango da. Are gehiago, 20:30ean Amaia Udal Antzokian ikusi ahal izango duguna dantza tradizioaletik kanpo dago, eta Arrasateko eta beste herri batzuetako koreografoek atzerrian ikasitako joera berritzaileenak Arrasaten plazaratu eta ezagutzera emango dituzte.

Zinekluba eta antzerkia

Oraingo asteburuan Amaia Udal Antzokian ikusgai izango den gaur egungo dantza emanaldiaren harian, Arrasateko Udaleko Kultura Sailak ikasturte berrirako kultura programazioa prestatu du.

Maritxu Kajoiko atsedendiaren ondoren, urriaren 12an, 17:00etan, Taupada taldeak umeendako *Printze Txikia* izeneko txotxongilo lana antzeztuko du. Urriaren 20an, 19:30ean, berriz, Kanpingags&Txalo taldeak *Toda la biblia... o casi* izeneko lana antzeztuko du. Zer esanik ez, antzezlan bi horiek, ohikoa den moduan, Amaia Udal Antzokian izango dira.

Bestalde, abuztuko eta iraileko atsedendiaren ondoren, urriaren 10ean, Soren Kragh-Jacobsen-en *Dogma* eskolako *Mifune* filma; urriaren 17an, Robert Guédiguian zuzendariaren *La ciudad está tranquila*; urriaren 24an, Peter Cattaneoren *Lucky Break*; eta, azkenik, urriaren 31n, David Pujol zuzendariaren *La Biblia Negra*. Zelanbait, zinema komertzialetik kanpo dauden filmak dira. Gaueko bederatzi eta erdietan emango dituzte.

EMAKUME TXOKOA

Emakume Sailak antolatutako ikastaroak

Literatura ikastaroa:

Liburutegiarekin batera antolatua
Noiz: Urritik maiatzera
Euskaraz eta gaztelaniaz
Doan

Aventura corporal ikastaroa:

Emalea: Pepa Bojó
Noiz: eguenean, 17:00etatik 19:00etara
Urriaren 17tik abenduaren 19ra arte
Izenematea : Emakume Saila, Gazte Bulegoa edo 943 79 41 39
Doan

Komiki ikastaroa:

Emalea: Asisko Urmeneta.
Noiz: urriak 10, eguena
Urriak 14, astelehena
Urriak 17, eguena
Saio bakoitza bi ordukoa izango da
Tokia: San Viator Ikastolan
18:00etatik 20:00etara
Plaza mugatuak, gehienez, 12 ikasle.



ARRASATEKO UDALA

Gazteria Saila ■

Emakume Saila ■

Garagartzako jaixek

San Migelak 2002

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

Ante
garajea

Garagartza
auzoa, 9
Tel.: 943 79 82 59



**TXAPA ETA PINTURA
KONPONKETAK**



Belun

Garagartza auzoa Tel.: 943 79 61 14



KOBATEKO HARROBIA

Eraikuntzarako harria





**KOBAUNDI
HORMIGOIAK**

Hormigoi prestatuaren fabrikazioa

**Ondo pasau
Garagartzako jaixetan**

Tel.: 943 71 24 03. Faxa: 943 77 02 51
Posta kutxa: 85. Garagartza auzoa.



Egitaraua:

27 BARIKUE

19:30 Jaixen hasierie, Ikurriñien igoeriaz eta etxaflero jaurtiketiaz.

19:45 Kalejirie, BIOTZATARRAK txarangiaz.

22:00 Dantzaldixe, HAITZAMA taldeaz.

00:00 Lamiñei eta Neanderthal gizoni ongietorrie.

Horren ostien, dantzaldixe.

28 ZAPATUE

12:00 Mezie, auzoko hilddakuen alde.

12:00-14:00 eta 16:00-19:00 Puzgarrixek, ohe elastikuek eta zezen mekanikue.

18:00 Irrati bidez kontrolautako kotxien

Garagartzako III. Sarixe.

22:30 Dantzaldixe, TXINPARTA taldeek alaittute.

04:00 Auzoko gautxorixendako txokolatadie.

29 DOMEKA

12:00 Mezie, Sanmigelen ohorez.

12:30 Euskal dantza erakusketie, Txikitxu taldeaz.

14:30 Auzo bazkarixe.

18:30 Erromerixie, HAITZAMA taldeaz.

Barikuen eta zapatuen buzkentzak egongo die

18:30etik aurrera.

*Paraje eder
baten kokatua*



Arteaga

Landetxea

*Arteaga baserria,
Garagartza auzoa, 37 zenbakia
20500 Arrasate • Gipuzkoa
Tel. 943 71 18 81
Faxa: 943 71 18 82*

FAGOR



Etxetresna Elektrikoak jai zoriontsuak opa dizkizue



Arrasate Irratiko langile Gaizka Vitoria izango da Irrati lantegiko irakaslea.

IKER BARANDIARAN

IKASTAROAK/ Udaleko Gazte Sailak hainbat ikastaro antolatu ditu

Arrasateko Udaleko Gazte Sailak ikastaro ugari jarriko ditu abian

IKER BARANDIARAN

Urtero moduan, Udaleko Gazte Sailak ikastaro eskaintza oparoa prestatu du ikasturtea hasteko. Guztiak urrian hasiko dira eta, gehienez, abendura arte irauango dute. Era guztietako ikastaroak izango dira, eta ziur zure gustukoren bat topatuko duzula.

Arrasateko Udaleko Gazte Sailak hainbat ikastaro antolatu ditu gazteendako. Urriaren 19tik azaroaren 30era arte, zapatu goizetan, Irrati lantegia egingo dute. Irakaslea Gaizka Vitoria izango da eta ikastaroa Arrasate Irratian emango dute. Hamabost urtetik gorakoei zuzenduta dago, eta, gehienez, zazpi lagunekoko taldea egingo dute.

Urriaren 10ean, 14an eta 17an, bestalde, Asisko Urmenetak Komiki ikastaroa emango du, San Viator Ikastolan. Plazak mugatuak izango dira, eta, gehienez, hamabi ikasle hartuko dituzte.

Aurten ere euskal dantzek ez dute kalerik egingo: Lore Gazteak taldearen eskutik, hamar urtetik gorakoei euskal dantzak ikasteko aukera izango dute; urria-

Ikastaro guztiak urrian hasiko dira eta, gehienez, abendura arte irauango dute

Iaz izan zuen arrakasta ikusita, Emakume Sailak Autodefentsa ikastaroa antolatu du

ren 18tik abenduaren 13ra arte, egubakoitzero, Lore Gazteak taldearen egoitzan batuko dira.

Eta ipuinak entzutea eta kontatzea gurago baduzu, urriaren 10etik abenduaren 19ra arte, Ipuin Kontalari ikastaroa izango da.

Bestetik, aurreko ikasturtean izan zuen arrakasta ikusita, Emakume Sailak Autodefentsa ikastaroa antolatu du. Eta aipatutako ikastaroez gain, beste ikastaro exotikoago batzuk ere antolatu dituzte: horra hor, esaterako, dagoeneko klasiko bilakatu den Perkusio ikastaroa edo iaz arrakastatsua izan zen Sabel Dantza ikastaroa.

Perkusio ikastaroa Gazteluondon emango dute, eta has-tapen eta sakontze mailak izango ditu. Jaione Albenizek emango duen Sabel Dantza ikastaroak ere maila bi bereiztuko ditu, eta Arrasate Musikalen emango dute. Halaber, Funky eta Hip hop dantzen ikastaroa ere prestatzen dabilta. Argibide gehiago, Gazte Bulegoan: 943 77 00 65.

EMAKUME TXOKOA

Emakumeei zuzendutako beka

Arrasatekoa bazara eta proiektu bat baduzu, hona hemen zure aukera: emakumeei zuzendutako beka, 3.000 euro, zure ametsa egia bihurtzeko, konta egiguzu. Zure proiektua errealitate bihurtzen lagunduko dizugu.

Ideiak eta proiektuak aurkezteko epea : azaroaren 7a

Arrasateko Emakume Saila
Tel.: 943 79 41 39



ARRASATEKO UDALA

Emakume Saila

KULTURA/ Arrasateko I. Cante Flamenko Txapelketa

Arrasateko Cante Flamenko Txapelketako lehen finalerdia zapatuan izango da

IKER BARANDIARAN

Al Andalus elkarteak Arrasateko I. Cante Flamenko Txapelketa antolatu du. Bihar, zapatua, hasiko da txapelketa, Al Andalusen egoitzan, eta urriaren 5ean eta 12an finalerdiak egingo dituzte. Estatuko hamazortzi abeslarik parte hartuko dute txapelketan.

Bihar, zapatua, Arrasateko I. Cante Flamenko Txapelketa hasiko da. Txapelketa hori Arrasateko Al Andalus elkarteak antolatu du, eta hiru finalerdiak elkarteak berak Arrasaten duen egoitzan egingo dira. Bata, bihar, zapatua; bestea, urriaren 5ean; eta azkena, urriaren 12an. Finala, berriz, urriaren 26an egingo dute. Azken ekitaldi hori Amaia Udal Antzokian egingo dute, cante flamenkoan interesatuta dauden herritar zein kanpotar guztiek ekitaldia ikusi ahal dezaten.

Txapelketa horren ideia aspalditik dator. Izan ere, Al Andalus elkarteak halako txapelketa bat egin gura zuen, eta poliki-poliki asmoa bete du. Txa-

Hamazortzi abeslarik parte hartuko dute, eta finala Amaia Udal Antzokian izango da

pelketa horretan parte hartzeko deialdia Espainiako Estatu osora zabaldu dute. Eta erantzuna oso ona izan da, baina antolatzaileek parte hartzea hamazortzi abeslariarekin mugatu gura zuten, eta hala egin dute.

EUSKAL HERRI KANPOKOAK ERE BAI

Denera, hamazortzi abeslarik parte hartuko dute. Horietako hamahiru Euskal Herrikoak dira eta gainerako bostak Kordoba, Malaga, Linares, Santander eta Logroñokoak, hain zuzen ere.


Cante flamenkoaren barruan hainbat modalitate daude, eta antolatzaileek hauek guztiak onartuko dituzte: tonak, segurillak, livianak, serranak, soleareak, granainak, malagueñak, car-

tagenerak, tarantak, petenerak, Cádizeko eta Korbobako bule-riak, cantiñak, mirabrak, erro-merak, caracolak, tientoak, tan-goak, rondeñak, verdialeak eta fandangoak, besteak beste.

Antolatzaileek Arrasatetik 50 kilometro baino urrunagotik etor-tzen direnei kilometrajea ordain-duko diete. Arrasatetik 160 kilo-metro baino urrunago bizi dire-nei, berriz, ostatua ordainduko diete.


Antolatzaileek abeslariari gita-rrista bana edo bina jarriko die-te laguntzaile. Hala ere, abesla-riek euren gitarrista ekarri gura badute, antolatzaileek ez diete eragozpenik jarriko, baina ez dute haren kosturik ordainduko.

Finalera heltzen diren abes-lariak oroigarri bana jasoko dute. Oroigarrian, Arrasateko Porta-loia eta aulki eta gitarra bana age-ri dira, eta diseinua eta ekoizpe-na Kordobako bitxigile batzuek egingo dute. Bestalde, A taldeko lehenengo sailkatuak 900 euro jasoko ditu; eta B taldeko lehe-nengoak, 600 euro. Eta petenera eta fandango onenak 300 eurore-kin sarituko dituzte.



Al Andalus elkartean cante flamenkozaleak dira.

ARTXIBOA



Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95
ARRASATE



Salterain

PVC-zko ate eta leihoez gain:
mocketak,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, testila...

BEHEKOTABERNATIK

Antonio Murillo

KAJOI TABERNAKUE

XABIER URZELAI

Antonio mondraguetarra da. San Andresen jaixo zan, *sesentaitresien*. Elektronika ikasi euen, Ofizialiko titulue atara euen, baiñe belaxe hasi zan tabernari lanetan. Hasi, Lorategin hasi zan, Aterpen beste urtebete egin euen, eta gero Kajoi tabernie zabaldu euen, oin dala hamasei urte.

Amets bat?

Egixe esan, ez dakit ze erantzun. Elkarrizketa luzie izen biher da hau.

Eta amets txar bat?

Garzón (Barriek). Geure artien burrukan ibilttie.

Egin dozun azken biajie?

Alemanara.

Txartel horixe, zeñei?

Jente askori, neure burutik hasitte.

Eta gorrixer?

Politikuei.

Pelikula bat? Liburu bat?

Disko bat?

Akziñozko pelikulak gustetan jat / *El Señor de los anillos* / Kantatoriek gustetan jat, Silvio Rodríguez, batez be.

Drogak legalizauko zittukie?

Drogak baiño gehixago, *zentsutasune* legalizauko neuke.

Eta prostituziñue?

Bai.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Mondraguen txikiteuek arrakasta haundixe dauko, baiñe taberna haundixaguet falta die.

Ze dauketzu sobran?

Jatortasune.

Eta faltan?

Pazientzia.

Ze gustetan jatzu Mondraguetik?

Dana. Gutxi gare Mondraguetik dana gustetan jakuna.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Udaletzeko funtzionariñuek.

Eta lehendakari izengo bazitze?

Gauza asko daguz hobeketako, baiñe ez dot uste Ibarretxe txarto



X.U.

“Aurreko izena ahazteko asmoz elegidu geuen Kajoi, eta asmatu egin geuen”

dabilenik.

Mendi bat?

Gurago dot lautadan ibilttie, Urkulun, esaterako.

Bizi izetëra hiri batera juetekotan, nora?

Mondraguen gustoren. Aldi berien, herrixe eta hirixe da.

Ezagutu dozun pertsona interesante bat?

Cienfuegos-eko obispue, Kuban.

Eta ezagutu nahiko zeunkeena?

Fidel Castro.

Zertan gastauko zeunke dirue gustora?

Argazkigintzan.

Tranpan ibilttekotan nor-

“Maritxu Kajoi Egunien zerbezie da gehixen saltzen dan edarixe. Komoduena be bada”

baittekin, zeñekin?

Claudia Schiffer-ekin.

Ze dala-eta Kajoi izena?

Izen ona jartie ez da errexer, eta Maritxuren amabirjiñe onduen dagueñez...

Hortan, urriko lehen egua-kotxa gogoz ospatuko dozue, ala?

Tabernari danendako egun berezixe izeten da, nahiz eta lan haundixe eukitten dogun.

Udan ze izango litzake Kajoi terraza barik?

Beste taberna bat.

Aurten be errugbikuek antolaketan dauen jaixei aurre egitteko gertu?

Bai, bai. Helburue herrixe mobidutie bada, geu beti gertu.

NIREBIDAIAHURA / Markel Urrutia

Italiara / 2002ko abuztuan

Markelek eta Izarok Italia ezagutzeko aprobetxatu dute abuztuko oporraldia. Abuztuaren lauan abiatu ziren Frantzia aldera, eta Marsella inguruan egun bat egin eta gero, Ventimiglia alde-tik Italiara joan ziren. Italian Florentziarako bidea hartu zuten, eta gutxitan ikusten diren ekaitz horietako bat harrapatu zuten pare-parean. Ez zen giro kanpinean egoteko, eta gau batzuk ostatueta egin behar izan zituzten. Iritsitakoan, Florentziatik 30 kilometrorra dagoen aterpetxe batean hartu zuten ostatu, eta Florentziara trenez joaten ziren.

Florentzia asko gustatu zitzaie, eta Gasteizen antzerakoa dela iruditu zitzaie: “Antzekotasun handia daukate. Gauzak ikusteko ez dago tren edo autobus beharrik, nahiko txikia dela esango nuke”, dio Markelek.

Florentzian astebete egin zuten, eta bikote arrasatearra oraindik harrিতта dago nolatan inork ez dien ezer lapurtu: “Mundu guztiak galdetu digu ea zerbait lapurtu diguten, eta guk ez dugu inongo arazorik izan”. Hala ere, hantxe ikusitako jendilajearen arabera, argi daukate Italiako zenbait lekutan lapurretak eguneroko ogi direla. Esbastika mordoa ere ikusi dituzte Italian: “Edo lau dira eta egun osoa horretan dabilta, edo indarra daukan mugimendu bat da”, dio Markelek.

Florentzian, besteak beste, Santa Mariano Bellako Katedralla, Duomoko plaza eta Vecchio jauregia ikusteko aukera izan zuten. Florentziatik Italiako hiriburura jo zuten, Erromara: “Erroma sekulakoa da, eta zerbait ikusteko autobusak, trenak..., denetarik hartu behar zen”. Erroman Koliseoa, Garaipenaren jauregia, Fontana de Trevi eta beste hainbat eraikin ikusi zituzten. Markelek ez zuen zortea lagun izan eta gaixotu egin zen. Sukarra zela-eta Arrasatera bueltatzea erabaki zuten. Edozelan ere, itzuliko diren dudarik ez dago, hori ziurtatzen duen txanpona botata dago-eta.

XABIER URZELAI



Erromako Koliseoaren argazkia.

“Denek galdetu digute ea ezer lapurtu diguten”

Herrialde berriak bisitatu dituzu udan?


Zure bidaia kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.

Arrasate
PRESS



ZAHARRAREN ETXETIK



ARRASATE PRESS

Edadetuek gustura jotzen dute hondartzetara eta igerilekuetara bainua hartu eta igeri egitera.

Hirugarren adinean ere igeri egitea osasunarendako mesedegarria da

ZURINE VELEZ DE MENDIZABAL

Nahiz eta uda honetan eguraldiak askorik lagundu ez duen, bainua hartzeko edo hondartzatik paseatzeko egunak ere izan dira. Hala ere, herrian ez dago hondartzarik, eta negua bertan daukagu. Hori dela eta, herriko kiroldegiko igerilekua alternatiba bezala erabil daiteke.

Kiroldegiko igerilekuaren ura kanpoko tenperatura baino beroagoa egoten da, eta horrek edonor animatzen du uretan sartzen. Sarri, kanpoko hotzak atzera botatzen du asmo hori, baina atzakia horrek ez du balio gaur egunean. Arrasateko barruko igerilekuko ura, gutxi gorabehera, hogeita zazpi gradutan egoten da, esaterako.

Gainera, igeri egitea kirola egitea da, eta kirola osasungarria.

Igeri egitean gorputzeko ia gehigarri guztiak hartzen dute parte. Hala ere, edozein kirol egiten hasi aurretik, komenigarria da sendagilearengana jo eta hari kontsultatzea; horrela, norberak

zenbaterainoko ahalegina egin dezakeen jakingo du.

Uretan aspaldi ibili ez den batek lehenengo egin beharrekoa urari beldurra galtzeko flotatze-ariketak dira.

Behin segurtasun hori lortuta, arnasa zelan hartzen den ere kontuan hartu behar da. Kome-

Barnealdekoak igerilekura

Kiroldegia berriztatu aurretik erretiratuek beharpen txartela zuten, baina orain ez dago horrelakorik. Familiaren bazkide kopuruari begiratzen diote deskontua egiteko. Hala ere, 65 urtetik gorako 183 bazkide ditu igerilekuak, eta egunero berrogei bat erretiratu hurbiltzen dira hogeita zazpi gradura dagoen uretan igeri egitera.

nigarria da ahotik hartzea, normal. Bota ere modu berean, urpean egonda ahotik egitea gomentatzen dute adituek.

Igeriketarekin bizimodu sedentarioa utzi eta energia larri erre barik ekintza atsegin betean parte hartzen da. Gainera, gorputza mugitzeko zailtasuna dutenek uretan errazago egingo dute ariketa. Horrekin batera, bizkarrezur patologikoa behar dutenentzat, eta abarrendako, aukera egokia da igeriketa.

Azken baten, igeriketa ezforztu handirik egin barik kirola egiteko ekintza da. Kiroldegiraino ibiltzen joateak ere abantaila dakar; izan ere, horrela, hankak pixka bat mugitzeko aukera proposa dago-eta.

Arrasateko kiroldegian hirurogeita bost urte baino gehiago duten ehun eta laurogeita hiru bazkide daude. Horietatik, berrogei bat joaten dira egunero igerilekura. Askok sendagilearen aginduz gerturatzen dira Muskolara, eta beste batzuk, aldiz, igeri egitea atsegin dutelako.

LABUR

Dantza eta Internet ikastaroak egin gura dituzte Abaroa zaharren elkarteak

Abaroa zaharren elkarteak dagoeneko hasi da ikastaroak prestatzen. Datorren eguaztenean, urriaren 2an, Dantza ikastaroa hasiko dute. Izenik eman ez duten baina interesa dutenek Abaroara jo beharko dute, ahal den lasterren. Bestalde, atzo bertan (eguna), erdiguneko zaharren elkarteak Interneteko ikasketen gaineko berbaldi informatiboa izan zuten, Abaroan bertan.

Uribarrin oroimenaren gaineko berbaldia egingo dute, eta Abaroan Eskulan ikastaroa

Datorren eguaztenean, urriaren 2an, Uribarrin zaharren egotzan berbaldia egingo dute. Hain justu, Oroimenaren sekretuak gaia landuko dute berbaldi horretan.

Bestalde, Abaroa zaharren elkarteak, urriaren 3an, Eskulan ikastaroa hasiko dute. Ikastaroa egunero egingo dute, 15:00etatik 18:00etara. Interesatuok izena eman, lehenbailehen.

ZAHARRENA HOTIK

Angel Baltzategi

ERRETIRATUA


Angel Baltzategi ezaguna da herrian. 1998an erretiratu zen ezkerko, gustura ibiltzen da lagunekin edo senitarte-koekin paseatzen.

Ez zinen Arrasaten jaio, ezta?

Hala da. Gironan jaio nintzen, 1938ko urtarrilaren 13an. Aita frontean zegoen, eta ama, arreba eta amandrea erbestera joan ziren, Kataluniara. Handik sei hilabetera, Bartzelonara jo genuen eta hango Euskal Etxean bataiatu ninduten. 1939an, frankistek Bartzelona hartu zutenean, Arrasatera bueltatu, eta Zaldibar pilotalekuaren atzeko aldera bizi izatera joan ginen. Aurretik, nire gurasoak Iturriotz kalean bizi ziren, baina gerran bonba batek etxea suntsitu egin zuen.

Zer moduzko ikaslea zinen?

Bueno, erdipurdikoa, ez ona ezta txarra ere. Sei urte nituenetik zortzi urte bete artean Seber Altuben, mojetan, ibili nintzen. Gero, zortzi urterekin San Viatorrera jo nuen,



eta hamalau urterekin Zalduspera, Eskola Profesionale-ra joan nintzen arte. Han, Ofizialtza Industrialak ikasi nuen. Tartean, egun erdiz Gamei enpresan lanean ibili nintzen.

Gerora ere enpresa berean lanean ibili zinen, ezta?

Bai, 1954tik 1963ra Gamein doitzaile lanak egin nituen. Handik Arrasate enpresara joan nintzen, eta azken horrek arazoak izan zituenean Fagorrera joan nintzen. 1998an erretiratu nintzen eta ordutik hona lasai-lasai bizi naiz. Askok paseatzen dut, lagunekin ere irte ten naiz, eta asteburuetan Nafarroa aldera jotzen dut.

Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

LAKET

Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72

MEHER Maritxutanako prest!

Bañez doktorea, 1 • ARRASATE
Tel.: 943 79 63 85

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82



ARRASATE
Andrea Dapena
Urriaren 2an, 5 urte. Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Lier Casturiense
Irailaren 19an, 8 urte. Zorionak, etxekoen partetik!



ARRASATE
Asier Casturiense
Irailaren 19an, 8 urte. Zorionak, etxekoen partetik!




ARRASATE
Jon Beitia
Irailaren 24an, 14 urte. Zorionak, gurasoen eta anaia lkerren partetik.



ARRASATE
Lore Puente
Irailaren 22an, 3 urte. Zorionak, guztion partetik!



ARRASATE
Gorka Aranbarri
Irailaren 26an, 5 urte. Zorionak! Oihana eta gurasoak.



ARAMAIO
Iñaki Molero
Irailaren 29an, urtebete. Zorionak, etxekoen partetik!



ARRASATE
Xabier Belastegi
Urriaren 1ean, 8 urte. Zorionak, etxekoen partetik, *Shin Chan!*



ARRASATE
Larraitx Madariaga
Irailaren 29an, 24 urte. Zorionak, *Larri!* Koadrilakoen partetik.



ARRASATE
Ane Gorroñoigoitia
Irailaren 30ean, 7 urte. Zorionak! Etxekoak eta zure laguntxoak.



ARRASATE
Xabier Arregi
Irailaren 30ean, 6 urte. Zorionak! Etxekoak eta zure laguntxoak.



ARRASATE
Mertxe Agirreurreta
Irailaren 25ean, urtebetezeta. Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE
Francisco Arregi
Urriaren 4an, urtebetezeta. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Josune Garai
Irailaren 27an, 24 urte. Zorionak, eder hori! Etxekoak.



ARRASATE
Anna Egjara
Irailaren 28an, 12 urte. Zorionak! Senideen partetik.



ARRASATE
Maialen Gaztañaga
Irailaren 24an, 16 urte. Zorionak! Hori da edade hori!



ARRASATE
Itziar Uriarte
Irailaren 30ean, 5 urte. Zorionak, *sorgina!* Aitaren, amaren eta Raulen partetik.



ARRASATE
Oier Abarrategi
Irailaren 29an, urtebete. Zorionak! Eñaut, aitatxo eta amatxo.



ARRASATE
Ainhoa Landa
Irailaren 13an, 19 urte. Zorionak! Familiakoen partetik.



ARRASATE
Mainer Landa
Irailaren 10ean, 22 urte. Zorionak! Familiakoen partetik.



ARRASATE
Mikel Zabala
Irailaren 25ean, 12 urte. Zorionak! Familiakoen partetik.



ARRASATE
Unai Ibabe
Irailaren 27an, 24 urte. Zorionak! Familiakoen partetik.



ARRASATE
Ana Salaberri
Irailaren 22an, 12 urte. Zorionak! Koadrilakoen partetik.



Zorion itzazu zure lagun eta senitartekoak.

Zatoz Arrasate Pressera martitzena baino lehenago argazki batekin eta utzi gure esku!


Otalora lizentziaduna, 31.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

EZETZASMATU



Zein kaletan dago argazkian azaltzen den armarrria?
Arrastoa: Arrasaten zein giro egiten duen neurtzeko tresna ez dago urrun.

ERANTZUNA

Ekarri txartela **EGUAZTEN**
EGUERDIRAKO ARRASATE PRESSERA!




IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MARCELINA ZUBIZARRETArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Marcelina!
Galderaren erantzun zuzena:
Maalako Errabala.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!

Scottex komuneko papera
12 erroilu + 4 doan

2,79 € 464 pta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

ARRASATEKO HISTORIA

Arrasatearrak eta altzairua
Historia Garaikidean

ION ANDER RAMOS

XVI. mendeak ederto erakusten digu Arrasateko bizilagunak zelan bizi ziren. Historia Garaikidean, Arrasateren gaineko lehenengo datuek diotenez, altzairuaren finantziazio, produkzio eta komertzializaziotik bizi zen herria. Abeltzaintzarekin eta nekazaritzarekin lotutako ofizioek garrantzi txikia zuten.

Historiografia tradizionalaren arabera, euskaldunok abeltzaintzatik eta nekazaritzatik bizi izan gara, eta industria eta komertzioa garaiko gizarte-ari laguntzen zieten sektoreak baino ez ziren, baina, Arrasateren kasuan, kontuak bestelakoak dira. Arrasateko bizilagunak Udalatxeko meatzetatik

eskuratzen zituzten produktuetatik bizi ziren, lurretik eskuratzen zituzten aberastasunak landuta eta salduta.

Neurri baten, Alfontso X.ak meatzeak ustiatzeko Arrasatearrei bakarrik emandako eskubideak asko lagundu zuen herriko lanbide garrantzitsua zein izango zen erabakitzen. Horri esker, Arrasate ezagun egin zen atzerrian.


“Arrasate altzairua ekoiztu eta saltzeagatik egin zen ezagun atzerrian”



1 Meatzaga. 2 Galaraga. 3 Arremena. 4 Salturri. 5 Eixebarri. 6 San Balerio
7 Udala Auzoa (Barrio de Udala).

Altzairuaren produkzio, finantzaketa eta komertzializaziotik bizi izan ziren arrasatear gehienak.

ARRASATE PRESS



IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE




Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76



- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50

MADINA ZURAK
Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontratxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagarriak

Zarugalde, 38 • Tel.: 943 79 13 78

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko irailaren 27a / 39. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxe: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com

Zazpi-zortzi orduz Aramaioko mendietan

UBANE MADERA

Seigarren urtez, Aitor Arana mendizale aramaioarra gogoan izango dute herrikideek, eta haren omenez mendi ibilaldia egingo dute. Domekan izango da eta 35 bat Km izango ditu.

Orixol Mendi Elkarteak antolatu du VI. Mendi Ibilaldia. Ibarran hasiko da eta, 35 kilometroko itzulia egin eta gero, Ibarran bertan bukatuko da. Kurtzeta, Asensio, Untzilla, Murugain, Kataia, Cuatrovientos, Tellamendi, Lezia, Orixol, Arangio, eta Arriola zeharkatu beharko dituzte mendigoizaleek. Bidean bost kontrol izango dituzte, eta hirutan janari-edariak banatuko dizkiete ibilaldiaren antolatzaileek. Horrez aparte, mendizale bakoitzak eraman beharko du gainerakoa. Eta bukaeran, Ibarrako kiroldegian dutxa hartzeko aukera izango du gura duenak. Esan beharra dago laugarren kontrola arratsaldeko bostetan itxiko dutela.

ZAZPI-ZORTZI BAT ORDU

Antolatzaileek egindako kalku-



ORIXOL MENDI ELKARTEA

112 lagunek parte hartu zuten iaz Aitor Aranaren omenezko ibilaldian.

luen arabera, zazpi-zortzi bat orduko ibilaldia izango da domekakoa. Goizeko zazpi eta erdietan irtengo dira Aramaioko kiroldegitik. Eta ibilaldia oso-osorik egingo duten parte hartzaileek diploma jasoko dute opari.

Parte hartu gura duenak telefono hauetara deitu beharko du izena emateko: 635 70 05 14 (Oihana) edo 945 44 53 42 (Judith). Bost euro ordaindu beharko dira, eta adinez txikikoendako, berriz, doan izango da.



Irestuak Untzillako eliza jo

Zapatuan, irestu batek Untzillako San Pedro eliza jo zuen, arratsaldean, ekaitza zenean. Lekuko batek, Fernando Beitiak, kontatu digunez, kanpandorretik sartu eta barruraino iritsi zen; bidean, lanpara batekin topo egin zuen eta, harekin kontaktua egin eta gero, atzeko kristaletatik irten zen. Kalte dezente egin ditu, eta, besteak beste, horma guztiak berritu beharko dituzte.

HERRITARREN HITZA / Rosa Mondragón • Kazetaria

Elizarekin topo egin dugu

Azkenaldi honetan kritika ugari jasotzen ari da eliza, bera osatzen duten apaiz, gotzain eta abarrek eginiko deklarazioak direla eta. Alderdien legea dela, Bushek Iraken kontra darman politika, ... eta oraingoan emakumeek jasotzen duten tratu txarren ingurukoak egin berri dituzte.

Ez da eskubiderik ez duelako, baina esaten denarekin oso kontuz ibili beharra dagoela iruditzen zait, are gehiago sozialki askok erakunde antigual bezala kontsideratzen dutela kontutan hartzen badugu, eta ia beti deklarazio horiek kritikatuak izaten

direla kontuan hartuz.

Beno, kuestioa da elizako gorengo ordezkariak oraingoan ez zaiela nahiko aitzakia iruditzen familian ematen diren emakumeen kontrako tratu txarrak senar-emazteen arteko ezkontza bertan behera uzteko, hau da, anulatzeko.

Harrigarria!

Dirudienek, emakume eta gizon hori ezkondu ziren momentuan biak ados ezkondu zirela argudiatzen dute eta



"Gehienetan tratu txarrak urteekin agertzen dira"

tratu txarren kontua ondorengoa dela, beraz, ezkontza bera baliozkoa dela.

Bai, seguruenik kasu gehienetan tratu txarrak urteekin agertzen dira; baina, nola? tratu txarrak ez direla nahiko arrazoi harreman hori anulatzeko?

Benetan, ez dut ulertzen. Behin eta berriz eliza berritu behar dela erakutsi digute, behin eta berriz gizonaren primazia oraindik ere askorentzat bizirik dagoela konfirmatu

digute, eta behin eta berriz, hori uste dut nik behintzat, diruz ordaindu dezakeenak erraz lortu dezake ezkontzaren anulazioa.

Honen harira, orain dela gutxi emakume bati entzun nion esaten, tratu txarrak jasaten dituen edozein emakume katolikok ez dituela gauzak garbi izango, ez duela jakingo zer egin horrelakoak entzun ondoren, eta beharbada elizakoek "beste masaila" jartzea gomendatuko diotela. Beharbada, exajeratua da ondorio hori ateratzea, baina esarak dioen bezala, "oraingoan ere elizarekin egin dugu topo".

LABUR

Ehizarako postuak zozketatzen hasi dira oraingo astean

Oilogor elkarte Aramaioko ehiza postuak zozketatzen hasi da oraingo astean. Ehiza-barrutiko 220 bazkideren artean Aramaion dauden 143 postu, hain zuzen ere. Ehizaleku horiek birigarroendako zein usoendako izaten dira. Lekuen zozketa ordenagailuz egingo dute.

Urtean bi hilabeterako izaten dira zozketatutako postuak: urrirako eta azarorako, hain zuzen. Bi hilabete horietan ehiza-barrutiko bazkide bakoitzak egunero-egunero (ordu jakinetan) erabili ahal izango du postua.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zulako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15	
11:00	11:15	
12:00	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45	
20:05	20:20*	21:05
21:00	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:00	19:45	20:00

OHARRAK

ZERGAK

Urriaren leian hasi eta azaroaren 29an bukatuko da honako zerga hauek borondatezko epean ordaintzeko epea: hiri-lur izaerakoak, landa-lur izaerakoak eta jardue-ekonomikoen gaineko zerga. Ordainketa helbideratuta dutenei haiek emandako kontu zerbakiaren bitartez kobratuko zaie, azaroaren 15ean, hain justu ere. Eta kontu zerbakia eman barik dutenek, berriz, Vital Kutzak Aramaion duen bulegoan ordaindu beharko dute. Borondatezko epea pasatu eta gero ordaindu barik dauden zergak %20ko gainkarguarekin kobratuko dituzte.

EPAIMAHAIKOEN ZERRENDAK

Datozen egunotan, 2003-2004 urteetan epaimahaietan parte hartuko dutenen zozketa egingo dute. Hori dela eta, epaimahaikoak hautatzeko erabiliko dituzten zerrendak Udal bulegoetan daude ikusgai. Edozein ere, zerrenda horien aurka ezin da erreklamaziorik egin.

GAZTE ABESBATZA, ABIAN

Aramaion gazte abesbatza sortzeko deia izan zen joan den egubakoitzean. Eta, antolatzaileetako batek, Blanka Mendialduak, kontatu digunez, 13 lagun agertu ziren egitasmoan parte hartzeko prest. Horrez gain, jende gehiago ere gertu ei dago horretarako. Hortaz, beste norbait kantuan ibiltzeko gogoz badabil, hortxe izango du herriko abesbatza berria, gazteendakoa.

KIROLA

Euskara bultzatzeko, jaioberriei opari bereziak egiten dizkie Udalak

Bestelako udalerrri batzuetan egiten duten moduan, Aramaioko Udalak euskara bultzatzeko ekimen berezi bat ipini du abian. Herriko jaioberriein lotutako ekimena da; izan ere, 2002an jaioko diren umeei oparia egingo die Udalak. Hiru gauza: euskararen transmisioak duen garrantzia esplikatzeko duen gutun bat (helburua da gurasoak animatzea seme-alabak euskaraz hazten); Olatz Zugastiren CD bat, euskarazko sehaska kantekin; eta Manex Agirre bertsolari aramaioarrak egindako bertsoa. Azken hori, gainera, bertsoa, alegia, jaioberri bakoitzari bereziki egindakoa da; hortaz, bakarra eta pertsonala. Udaleko Euskara batzordeak bultzatutako ekimena da. Rosa Mondragónek, Udaleko euskara teknikariak, adierazi digunez, dagoeneko sei jaioberri bidali diete opari berezi hori, eta, oraingoz, behintzat, harrera ona izan du.



HERRIKO AUZOETAN

OLETA I

Aramaioko elizateen artean bereziena da Oleta, bailaratik kanpo eta nahiko urruti dagoelako, Otxandio ondoan. Anboto eta Arangio mendien magalean dago, gainerako elizateak baino garaia-go; ondorioz, giroa dezente hotzagoa eta umelagoa du. Auzoko baserriak hiru kilometrotan daude sakabanatuta. Berriz, Axin errekek auzoa iparretik hegora gurutzatzen du. Haren ondoan sortu ziren Oletari jatorria eman zioten olak. Lursail zabalak ditu, zuhaitz hostotsuak eta amuarrrain ugari. Naturarekin harreman zuzena izanda, lasaitasuna eta freskotasuna gura duen edozeinendako Aramaioko lekurik aproposena da. Horrez gain, behin baino gehiagotan aipatu izan da han dauden pago zein haritzek garaiera ikusgarria dutela. Adibidez, Goikola baserrian 11,76 metroko zirkunferentzia duen zuhaitzen bat ei da.

Auzoko baserriez gain, aipagarriak dira, auzoko eliza, Udalaren taberna, Aurtolako ola, utzita dauden pare bat errota eta ganadu esplotazioa Jakina, baita Limitadoa ere.

'Aramaioko ibarraren iragana eta oraina'
Jesus Maria Elejalde

BOTEPRONTOAN / Begoña Alday · Briska Emakume Elkarteko presidentea

“Behin, abadeak esan zigun briskan gezurrak esatea barkatuta dagoela”

Oletako emakumeak ez dira, ez, geldi egotekoak. Horren adibide da hango Briska Emakume Elkartea. Taldearen gaineko *eskusiba* eman digu Begoña Alday, elkarteko presidentea. Briskan jokatzeko gainera, beste gauza asko egiten dituztela kontatu digu, besteak beste:

Noiz sortu zen taldea? Zergatik? 1996ko apirilean. Zergatik? Bada, lehenago ere guk briskan oraintxe letxe egiten genuen, igual-igual. Baina pentsatu genuen andre guztiak elkartu eta talde bat sortzea. Akaso, gehien ere izango zen eskulanak, kirola eta horrelakoak egiteko.
Hortaz, denetarik egiten duzue? Emakume taldea gara. Taldea egin aurretik ere elkartzen ginen, askariak egiten genituen... Eta pentsatu genuen taldea sortzea, beste barik, fundamentu barik.
Zenbat zarete? Orain gehiago? Hogeita hamabi. Orain, gaztetxo batzuk ere sartu zaizkigu, Pintura ikastaroa eduki dugunez... Zaharrok ere aurrera segitzen dugu, hortaz... 32.
Eta zergatik emakumeak bakarrik? Ez, ez. Guk gizonak onartzen ditugu, baina ez daude. Adibidez, egurra lantzeko ikastaroa



“Gizonak onartzen ditugu, baina ez daude (...), hemengo gizonak euren bizimodua dute”

dugu orain (Kepa Uribarrena aramaioarra da irakaslea), eta guztiondako iragarkiak ipini genituen, baina... hemengo gizonak euren bizimodua dute.
Talde moduan zer egiten duzue? Briskan denok gabilta, gazteak zein zaharrak, etortzen zaizkigun guztiak: 24. Briskan egiten dugu, martitzenetan, eguenetan, zapatuetan eta domeketan. Eta, bestela, astean behin askaria egiten dugu denok. Horrez gain, santu asko ditugu: Santa Ageda, San Sebastian... Denok batera ospatzen ditugu. Eta, bestela, edozertan laguntzen dugu.
Orduan, zenbat gauza egiten dituzue? Egurra landu, kirola, olio margolana, larrua landu...
Urtero ekimen desberdinak? Ahalegintzen gara zerbait berria egiten, eta ezin bada, aurreko urtekoa. Kontua da ematen

“Hemen, Oletan, oso jende jatorra dago eta hona datozenak ere antzerakoak dira”

diguten dirua gastatu egin behar dela.
Karta jokoan, zergatik briskan bakarrik? Briskan guk? Tutean ere egiten dugu! Taldeari, lehenengo, Anboto izena ipini genion eta gero, gu iritsi orduko izen denak okupatuta zeuden; horregatik ipini genion Briska Elkartea.
Txapelketetan ibiltzen zarete? Hemen, Oletan, bai, baina bestela ez. Dena dela, hemengo txapelketak gogorak izaten dira, zentzudunak! Arima osoarekin!
Gainerako kiroletan beharrezkoa izaten da trebetasun edo gaitasun apur bat izatea; briskan ere bai? Izugarria! Besteen gaintetik! Bestea engainatzea da briska. Nik, behintzat, gezur izugarriak esaten ditut.
Dena dela, behin, abadeak esan zigun briskan gezurrak esatea barkatuta dagoela. Hortaz, horregatik bada, zeruan gaude!
Zerbait gehitu gura duzu? Ez dakit. Gu konforme gaude. Diru nahikoa dugu, Zuriñe aramaioar fina dugu laguntzaile. Eta gizonak Danok Bat elkartea uzten digute, kirola egiteko, edo askariak egin gura baditugu... Denetarako utzi digute. Hemen, Oletan, jende jatorra dago.


ERRETRATUZAHARRA

Eskola Profesionalaren hasierak

Gaur egungo Eskola Politeknikoa Zalduspen zegoeneko argazkia dugu oraingo hau. Inauguratu berri zegoen eraikina, 1952. urtean. Horrela, aurten, Zalduspeko Eskola Politeknikoak 50 urte bete ditu.

Eraikin berriaren inaugurazio ekitaldian honakoak izan ziren, besteak beste: Joaquín Ruiz Jiménez Hezkuntza ministroa, Julio Otadui Arrasateko alkatea eta Jaime Font Andreu elizbarrutiko gotzaina.

Argazkian ageri diren ikasleak, berriz, eraikin berriaren izan zen aurreneko taldekoak dira. Argazkia 1956koa da, eta Grupo Sanjuanen dago aterata, eskola bukatutakoan. Bukatu zutenekin batera daude, gainera, Peritu-ikasketak egin behar zituzten ikasleak. Zenbakien bidez adierazita, hauexek: 1-Luis Gorostiza; 2-Luis María Alberdi; 3-Germán González; 4-Julian Urien; 5-Ramón Muruamendiaraz; 6-Melchor Barandiaran; 7-Ignacio Madina; 8-Javier Beistegi; 9-Jose Ignacio Mondragón; 10-Juan Bautista



Azkue; 11-Jose Luis Arenaza; 12-Rafael García; 13-Juan Carlos Olabarria; 14-Jacinto Azkarate; 15-Patxi Untzueta; 16-José Hermenegildo Barandiaran; 17-Mugarza; 18-Ezpeleta; 19-Alberto Guridi; 20-Tomás Txintxurreta; 21-Ignacio Uribebarria; 22-Jose María Iñarra; 23-Juan María Muruamendiaraz;

24-Juan José Etxabe; 25-Juan José Calles; 26-Nicolás Olabarria; 27-Angel Balzategi; 28-Luis Guridi; 29-Heriberto Altuna; 30-José Antonio Muruamendiaraz eta 31-Irizar.

Argazkian ikusten den eraikina ez zen osorik Eskola Profesionalarena. Beheko solairuan, adibidez Cometalen

biltegia zegoen; Juanito Vega izeneko langileak egiten zuen han lan; eskolako patio baten bizi ei zen familiarekin.

Argazkia eta informazioa:
Angel Baltzategi
Urtea: 1956

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Maalako Errabala eta uholdeak

Argazki zahar bat gaur egungo argazki batekin alderatzen dugunean, berehala konturatzen gara denboraren poderioz gauzak dezente aldatzen direla. Aldaketak nabarmenagoak izaten dira argazki zaharra egoera berezi baten aterata badago. Uholde baten eraginez, kaleek egun batetik bestera itxura guztiz ezberdina erakutsi badezakete, atera kontuak.



≈ 1942 Arrasaten 1942an izan ziren uholdeen ostean ateratako argazkia da hau. Aurtengo Maalako jaietako egitarauan azaldu da.



2002 Eguraldi kontuak nahiko aztoratuta dabilta, baina orduan baino euri dezente gehiago egin beharko luke egoera berriro errepikatzeko.

**CLUB
IYOLA**

Elgetara bidea
BERGARA
943 76 11 29

Monte
taberna

Maalako arrabala 2
Tel.: 943 79 20 56

JADE
ILE APAINDEGIA

Maritxu Kajoi
egunerako makilatu eta orraztu
20 €tik aurrera

ZATOZ!

Maalako Errabala, 21-B
ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31

**DANTZA
EMANALDIA**

Irailak 28, 8retan,
Amaia Udal Antzokian
6 euro, gazte txartelarekin 5

Ikutu: "Bostak S 2"
Nerea Urbieta: "Fiesta Plantana"
Saioa Ibañez: "Ihes Puntuak"



Arrasateko Udala

**Ikus eta egiazta itzazu
Mapfreren prezioak!**

SIETE 7

LÍDER

TODO RIESGO 100

POLIZA

POLIZA*

POLIZA

FORD FOCUS 1.8 TDCI GHIA (115 ZP)	427,01 €	746,97 €	902,50 €
AUDI A4 TDI AMBITION	465,97 €	1.097,10 €	1.435,90 €
OPEL CORSA 1.7 DI SRI	384,35 €	570,02 €	695,27 €
RENAULT KANGOO 1.5 DCI EXPRESSION	450,77 €	728,57 €	857,93 €
RENAULT SCENIC 1.9 DTI ALIZE	488,44 €	954,15 €	1.193,70 €
BMW 318 TI COMPACT	505,29 €	962,27 €	1.196,29 €
CITROEN XSARA PICASSO 1.6	433,68 €	780,19 €	952,58 €
CITROEN BERLINGO 1.4 MULTIVOLUMEN	414,59 €	617,32 €	757,08 €

ADIERAZITAKO KOPURUAK BEZERO HONI DAGOZKIO: 31 URTE BAINO GEHIAGOKO EMAKUMEA, 10 URTE BAINO GEHIAGOKO GIDABAIMENAREKIN ETA %35EKO BONUSAREKIN. BESTE BONUS BATZUEN BERRI IZATEKO, GALDE EGIGUZU.
*ARRISKU OROKO ASEGURUA FRANKIZIAREKIN.



MAPFRE

Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.



Erdiko kalea 14 • ARRASATE • 943 79 46 94



UDAZKENA · NEGUA

2002-2003 bilduma
dagoeneko zure esku.

